

MARISOL GARMENDIAK BEREHALAKO ETA PREMIAZKO HOBEKUNTZAK ESKATU DITU KONTSERBATORIORAKO

Marisol Garmendia Donostiako alkategai sozialistak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatu dio beste alde batera begiratzeari utz diezaiola eta Francisco Escudero Musika Kontserbatorioa txukuntzeko beharrezko neurriak lehenbailehen eta berehala abian jar ditzala.

“Lotsagarria da horrelako irakaskuntza-ekipamendu batek eskolak normaltasunez emateko gutxieneko baldintzarik gabe jardutea”, adierazi du. “Eraikin honek ez du betetzen irisgarritasunaren legea, ez du igogailurik solairu guztietara sartzeko, ez du larrialdietarako irteerarik eta Jokin Bildarratzen Sailak inbertsioa egin behar du lehenbailehen”, hautagai sozialistak adierazi duenez.

Garmendiak gogorarazi duenez, Easoko eraikinak 90 urte ditu jada, eta ia ez da inbertitu bere instalazioetan hainbat hamarkadatan. “Ez Donostiak ez Gipuzkoak ez dute musika-irakaskuntzako ekipamendurik merezi, jardunaren baldintza tamalgarrietan. Hori ez da gertatzen ez Bilbon, ez Gasteizen. Hezkuntza Sailaren utzikeria nabarmena da.”

Donostiako alkategaiak, kontserbatorioa kokatzeko, Easo-Errondo eremu berrian eraiki beharreko hiri-eraikin berri bat proposatu du. “Baina hori ez da gauetik egunera izango. Bitartean, premiaz jardun beharra dago, Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean jardun behar du egungo instalazioak hobetzeko.”